



### Kafe tristearen balada

Carson McCullers

---  
ASUN GARRANO HORTZGOENAK BELE

## Kafe tristearen balada (II)

Carson McCullers

Egile hau gustukoa dut, aspalditik ezagutzen dut, sakon ez baina (sakon ezagutu al daiteke euskaraz egile atzerritar bat?). Baina hartaz ezagutzen dudana beti gustatu zait.

Prosa zehatz, sintetiko bat darabil, arrandia erretoriko handirik gabea baina... ituan beti asmatzen duena. Prosa hau narrazioaren zerbitzuan dago, eta ez alderantziz. Areago, pittin bat kirurgikoa da, ukitu "sendagarri" bat daukala

esango nuke. Zein zentzutan? Edertasun formalak (eta informalak) duen zentzutan, hain zuzen.

Pasazaite-ren argitalpen honetan, aurreneko bi kontakizunetan, gorputz txikiak edota deformeak dituzten protagonistak azaltzen dira, haietako bat nanismoak joa. "Kafe tristearen balada"n "Txalkorra" (= Cousy Lymon) dago, eta hurrengo ipuinean, "Jockeya" izenekoan, jockey bat dugu protagonista (egia esan, bi jockey dira, "fisikoki" haietako bat bakarrik agertzen bada ere). Jockey guztiak izan ohi dira garaiera txikikoak, deformeak izatera heldu gabe, ez daude nanismoak joak (jockey profesionalak ezin izango lirateke izan, nanoak balira). Baina, zaldilasterketa batean istripu lazgarria jasan duen hockey bat aipatzen da, eta haren hanka bestea baino motzagoa du orain. Beraz, kontakizun honetan deformitatea berriro agertzen da. Baita *nortasun gatazkatsuak* ere (kontakizun guztietako pertsonaietan errepikatzen direnak). Eta alkohola.

"Wunderkind" ipuinean ustezko haur prodijio bat azkenean ez da horren prodijioa, eta hitz batekin laburbil daiteke: frustrazioa. Ustezko haur prodijioak mahaian ukabildada eman eta kaltea bakarrik egiten dion egoera batekin bukatzea erabakitzen duen arte. Ipuin honen hondoko dekoratua musika da.

"Madame Zilensky eta Finlandiako Erregea"n, musikaren munduko emakume profesional bat daukagu protagonista. Musikagile ospetsua da eta kontserbatoriorik onenek beretzat nahi dute. Elkarren antz handia duten hainbat umeren ama da, baina... beti dago "baina" bat McCullersen pertsonaietan. Protagonista honetan guztiz bat ez datorren zer edo zer dago... burutik ez omen dago oso ondo. Fantasiatzko mundu arraro batean bizi da, errealitatetik kanpo. Marjinalitate hau narrazio guztietan jartzen da agerian, egilearen nortasunaren parte da eta ipuinei darien malenkonia, tristura azaltzen du horrek. Musikak protagonistengan "sendatzeko

nolabaiteko "ahalmena" duela uste dut, nahiz eta aldi berean melankolia horretan sakontzen duen...

"Dabilena" ipuinean antzeko zerbait gertatzen da, beste modu batez baina. Horrek begi-bistan jartzen du egilearen irudimena egoerak asmatzeko orduan. Oraingoan gizon deserrotu bat daukagu, Europatik itzuli berria haren aitaren hiletan egoteko. Halako batean, bere emazte ohia ikusten du kalean (hainbat urte egon zen harekin ezkontuta). Hari telefonoz deitzea erabakitzen du eta afaltzera gonbidatzen dute. Senar berria eta bien bi seme-alabak ezagutzen ditu. Pentsa norainoko melankolia, tristura eta frustrazioa sentitzen dituen... European emakume batekin daukan harreman sentimentalari buruz gezur esaten die. Emazte ohiak pianoa oso ondo jotzen zuen, eta jotzeko eskatzen dio. Musika berriro. Etxean neskame bat ere badago. McCullersen ipuinetan neskame bat agertu ohi da. Burgesiako delat aldarrikatzeke egiten al du, halako harrotasun batez? Edo beste zerbait da? Nor da McCullersen ipuinetan agertzen den zerbitzaria? Litekeena da hori bakarrik izatea, zerbitzaria... Baina McCullers ez da emazte ohia, McCullers ipuineko gizon deserrotua da (tristeziak, frustrazioz eta melankoliaz betetako maleta batekin Europatik itzulia...)

"Etxe barruko dilema" ipuinean, bi seme-alaba dituen senar-emazteak azaltzen zaizkigu; seme-alabak txikiak dira. Emaztea alkoholikoa da. Alkohola ere konstante bat da McCullersen literaturan. Baina hemen muga guztiak gainditzen ditu. Alkohola, kasu honetan, agerriko arazo larria da. Gizona da lan egiteaz, etxeaz eta emazteak seme-alabei eskaintzen ez dien arreta emateaz arduratzen dena. Berriro ere frustrazioa, beldurra, lotsa (zer esango duten auzokoek, lagunek, senideek...). Eta, azkenean, halako amore emate bat, "gauzak horrela dira, ezin da ezer egin, ezin dira gauzak aldatu", ipuina horrela amaitzen da-eta, antza. Labur esanda, beste itzaropen bat... porrotera kondenatuta.

Eta azkenik, "Zuhaitz bat, harkaitz bat, hodei bat" izeneko ipuina dugu. Ipuin honetan pertsonaiek izenik ere ez dute. Zertarako. Hirugarren mailako taberna batean galdutako pertsonaiak dira. Lan egiten duen haur bat, burutik ondo ez omen dabilen agure bat, tabernari zakar bat, soldadu axolagabe batzuk... McCullersen ipuinetan haurrak agertu ohi dira, normalean ez dira protagonistak izaten —kasu honetan ez bezala—, baina agertzen dira, hor daude, zerbaitengatik... Kasu honetan, 12 bat urte dituen haur bat da. Lan egiten du, egunkariak banatzen ditu... Haur honekin ezohiko zerbait gertatzen da; ez luke taberna horretan, giro horretan egon beharko.

Beste ezaugarri orokor bat pertsonaien nortasun gatazkatsuak dira; eurek eraikitako murrerik baten kontra jotzeko berezko dohaina dute. Baliteke baldintzatzaile sozial bat egotea horretan guztian, baina neurri bateraino

soilik. Jaiotzatiko, berezkoa duten zerbait da: arazoak sortzen zaizkie, eta arazo horiek gainezka egiten diete azpian harrapatzeraino, ia-ia aurka egin gabe... sorginkeria baten biktimak izango balira bezala.

Ongi etorriak Carson McCullersen unibertso delikatu, gaixobera eta hauskorrera...